

berriak Triforio -tik



araba
álava

FADOAK, FLAMENKOAK ETA GITARRA SOINUEK HASIERA EMANGO DIOTE UDARARI SANTA MARIAN

'Kontzertuan eta irekita' ekimenak ordainpeko kontzertuen ziklo berria eskainiko du Mara abeslari portugaldarrarekin. Alentejon jaioa (Portugaleko hegoaldean), musika bizi eta arnasten du **MARAK**. Haurra zenetik izan du bidelagun abesteko artea, eta fadoak beti eduki du tokia hor. **Ekainaren 29an** aurkeztuko du 'Folha de Rosto' Santa Mariako atarian. Ikuskizun hau Portugalen, Espainian eta Cabo Verden egin du, eta fado eta Alentejoko abestiak ditu oinarri.



Uztailaren 6an, LUCAS MASCIANO argentinarraren txanda izango da. Bakarlaritzat hartzen du bere burua, bere esanetan, «idazten ditudan abestiak abesten» baititu. Bete gitarra banaezinarekin etorriko da; Argentina sorterrian 8 urte zituela jotzen hasi zen gitarra horrexekin, alegia. Gasteizen izango da 80ko hamarkadako Land Rover zahar batean ('La Kalinka' goitizena duenean) munduari bira eman ondoren, hainbat kontzertu eman eta bere bizitza musikalari buruzko disko-liburu bat idatzi eta gero.

Uztailaren 13an, berriz, **AMÓS LORA** izango dugu. Hogei urte bete ez dituen arren, gitarra-jole sendoa da dagoeneko. Hamaika urte zituela, Paco de Lucía liluratu zuen, zur eta lur geratu baitzen handik gutxira berak sortutako abestiekin lehen CDa grabatuko zuen haur haren talentuarekin. Estilo bakan eta guztiz pertsonalarekin fusionatzen ditu jazz eta flamenkoa. 'Sin más' hirugarren diskoa aurkeztu berri du, bere konposizioetan oinarritua hori, eta, bertan, berak jotzen ditu musika-tresna guztiak.

Jazzargia elkarte kulturalarekin eta Fundación Vital Fundazioarekin antolatutako, kontzertuak 20:30ean hasiko dira. Sarre-
rak, berriz, hemen lor daitezke: **www.kontzertuanetairekita.eus**. Kontzertu bakoitzerako sarrerak 10 euro balio ditu (6 euro Katedralaren Fundatzaileen Zirkuluko bazkideentzat). Era berean, ziklo guztirako abonua erosi ahalko da, 40 euroan (25 euro bazkideentzat).



Familiantzako bisitak

Familiantzako hurrengo bisitak ekainaren 15ean izango dira (17:00etan), gaztelaniaz, eta 29an (17:45ean), euskaraz. Uztailan, berriz, 9an izango da gaztelaniaz (17:45) eta 20an euskaraz (17:45). Bisitetan, bisitari txikienei egokitutako hizkera erabiliko da, azalpenak uler ditzaten, eta ibilbideaz gozatu.



Abesbatzak Katedralean berriz



Ekaina da abesbatzen hilabetea Santa Mariako Katedralean. Urteroko legez, Arabako Abesbatzen Elkartearekin batera eta Laboral Kutxaren babesarekin, ostiralero hainbat errepertorioko ehunka ahots izango ditugu. Emanaldiak atarian izango dira, 19:45ean. Katedralaren Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek gonbidapenak jaso ditzakete kontzertu egunaren aurreko astelehen eta asteartean. Sarrerak asteazketik aurrera egongo dira eskuragarri publikoarentzat.

PROGRAMA

Ekainak 7:

Haritz Hostoak, Urkanta, Gurasoak eta Badaia

Ekainak 14:

Manuel Iradier, Ahots Argiak, Vicente García eta Enol

Ekainak 21:

Lautada, Oskarbi, Eguzkilore eta Samaniego

Ekainak 28:

Gasteizko Lagunak, Mairu, Florida eta Abesbatza Sinfonikoa

Uztailak 5:

Dultzinea, Maiora Canemus, Erribera Beitia eta Aiala

Dibulgazioarekin jarraitzen dugu

Santa Maria Katedralak ekainaren 12a eta 14a bitartean Gasteizen ospatuko den Saiakera Ez Suntsigarrien Espainiako Elkartean (AEND) Kongresuan presentzia garrantzitsua izango du. Fundazioko zuzendari tekniko Leandro Camarak tenpluaren egiturazko monitorizazioari buruzko konferentzia emango du; Cristina Aransayk, Arabako Foru Aldundikoak, bere artelanen arteko hiru ikerketa azalduko du, eta Zaharberritze zerbitzuko Blanca Narbonak ondare historiko-arkitektonikoaren kontserbazioan aplikatutako saiakera ez suntsigarriei buruz hitz egingo du, zehazki, Nanocathedral proiektuari buruz.

Informazio gehiago:

www.aendvitoria2019.com

Hitzaldia



Sergio Escribano arkeologoak eta UPV-EHuren Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldeko kideak (GPAC) hitzaldi bat eskainiko du: 'ERMUALDE, un proyecto desde la arqueología para la comunidad' (**ERMUALDE: arkeologiatik abiatutako proiektua komunitatearentzat**). Ermuko Andra Maria Eliza monumentu-multzoari (Laudio) buruz arituko da, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian 2003an gehitu zena. Hamarkada bat beranduago hasi zen programa monumentua berreskuratzeko, eta gaur egun ere jarraitzen du. Escribanok azaldu egingo ditu orain arte egindako jarduerak hainbeste karisma duen eraikin honentzat, bere iraganari buruzko historia xehetasunez landuta. Era berean, erreferentzia egingo die 2015etik geroztik txunditu gaituzten arkeologia indusketei.

J.M. Barandiaran aretoa (Europa Biltzar Jauregia)

Ekainak 5, 19:30ean

Sarrera librea lekuak bete arte

